

Nola idatzi...

# Ekologia

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

## Izan zaitetz zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

## Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

## Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Esker-

tu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu berterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

## Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitetz harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

## Jar ezazu zeure aletxo

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Beharbada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten arituko zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

## Artikulu bat aukeratzea

Irakasleak beharbada gai zerrenda bat eskainiko dizu, haietako bat har dezazun; edota nahi duzuna aukeratzeko esango dizu.

- Aukera ezazu gaikideek berrikusitako aldizkari edo liburu independenteetan literatura ugari duen gai bat.
- Nahi baduzu, bila ezazu iturri interesgarri asko dituen gai bat, lehendabizi; gero, aukera ezazu Wikipediako artikulu bat, garatzeko, aurkitu duzun hartan oinarrituta.
- Bilatu zirriborroak diren artikuluak. Interesatzen zaizun eremu bateko zirriborroak bilatzeko, idatz ezazu *lasterbide* hau Euskal Wikipediako bilaketa barran: |lasterbidea [WP:Zirriborroak](#).

## Irakokizuna

Wikipediako bilaketa barran testu hau sartuta, biologia arloan dauden zirriborro artikuluak agertuko zaizkizu. Hor aurkituko dituzu zure lanarekin hobetu ditzakezun hainbat artikulu.

### Zer da sarrerako atala?

Sarrerako atala Wikipediako artikulu bateko lehenengo atala da. Sarrerako atal on batek bi-zpahiru paragrafotan artikulu osoa laburbiltzen du, testuingurua azaltzen du, eta gaiaren alderdi garrantzitsu guztiak aipatzen ditu. Lehenengo esaldiaren hasiera izan ohi da **artikuluaren gaiaren izena** letra lodiz; esaldi horretan definitzen da gaia, eta hor edo hurrengo esaldietan adierazten da zergatik den gaia garrantzitsua. Wikipediako artikulu bat idazteko estrategia ona izan daiteke lehendabizi sarrerako atalaren zirriborroa egitea; gero, zirriborro hori artikuluaren gainerakoa idazteko eskematzat erabil dezakezu. Lan horretan aurrera egiten duzun eran, berrikus ezazu aldizka sarrerako atal hori, artikuluaren gorputza ondo laburbiltzen duela ziurtatzeko.

### Zer da lasterbide bat?

[WP:Zirriborroak](#) erako testuari, Wikipedian, *lasterbidea* deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako bilaketa barran, bestela aurkitzen zailak diren orri espezifikoetara erraz iristeko.

## Idazten ari zaren artikulua antolatzea

### Eskualde biogeografiko bati buruz idaztea

Gertakari historikoei buruzko artikuluak lau atal nagusi izan ohi dituzte:

- Sarrerako atala: Artikulu osoa laburbiltzen duten 1–4 paragrafo.
- Ingurunea: Eremu fisikoa (kilometro koadrotan); eskualde mugakideak; ezaugarri nagusiak, hala nola zoruak, ibaiak, aintzirak edo ezaugarri nahiz gertaera geografikoak (suteak, sumendien erupzioak, uholeak, giza garapena); klima, geografia.
- Ezaugarriak: Ekosistemaren alderdi bereziak. Adibidez, ea hor badauden fruitu arbolak, uharriak, zingira handiak edo larreak; ea hurbil badagoen aintzirarik, ozeanorik edo basamorturik.
- Biosfera: Biodibertsitatea (edo haren eza), populazio dinamikak eta elkarrekintzak. Aipa itzazu lehendabizi goi mailako harrapariak; gero, harrapari txikiagoak; gero, harrapakinak, belarjaleak, landareak.
- Giza erabilerak eta eraginak: Ea gizakiek zer elkarrekintza duten eskualdearekin: nekazaritza, arrantza, meatzaritza, basogintza, eta abar.
- Kontserbazioa eta mehatxuak: Gizakiek ingurumenean duten eragina, hala nola garapena, basogabetzea, basamortutzea, neurritz gaineko arrantza, zoru degradazioa, eta abar.

### Espezie bati buruz idaztea

- Deskribapena: Itxura eta soinuak; aipa itzazu sexuaren, kokalekuaren... arabera dituen bariazioak.
- Habitata: Non bizi den eta zer harreman duen habitatarekin (besteak beste, dieta). Adieraz itzazu aldake-

ta historikoak, hala nola gizakiaren eskutik lurralde berrietara sartzea, gainpopulazioa, edo iraungitzeak.

- **Portaera:** Portaera soziala, ehizate edo elikatzeko teknikak, mehatxuei ematen dizkieten erantzunak, hazkuntza eta gorroteatzea, eta abar.
- **Taxonomia:** Nork aurkitu eta izendatu zuen espeziea, eta noiz?
- **Kontserbazio egoera:** Galtzeko arriskuan, galdua, eta abar. Aipa itzazu espeziearen egoerari dagozkion faktoreak eta eragina.

## Biografia bat idaztea

Ingeles Wikipediako «Rachel Carson» artikulua ([https://en.wikipedia.org/wiki/Rachel\\_Carson](https://en.wikipedia.org/wiki/Rachel_Carson)) biografia eredu bikaina duzu.

## Historia Wikiproiektua

Wikipedian badira historiari buruzko interesa duten hainbat wikilari. Historia Wikiproiektuan, Wikipediak historiari buruz dauzkan edukietarako eskema bat du, hemen eskuragarri: | lasterbidea [WP:Historia](#)

## Iturriak bilatzea

### Pentsa ezazu kritikoki

Zer iturri dira egokiak idatzi nahi duzun Wikipedia artikulua eratzeko? Onena litzateke iturri fidagarriak eta argitaratuak erabiltzea; eta, oro har, hirugarren batek berrikiak, zehatzak direla egiaztatzeko.

### Erabil itzazu iturri fidagarriak

Wikipediak bigarren mailako iturriak eskatzen ditu: lehen edo bigarren mailako iturri bat edo gehiago laburbiltzen dituzten bigarren mailako iturriak, eskuarki gaiaren ikuspegi orokor bat emateko helburua dutenak. Adibidez:

- **Literatura-aztertzeak.** Arlo horretako adituek idatzitako liburu edo argitalpenak, izen oneko argitaratzailearen batek argitaratuak.

### Ahal bada, hobe da ez erabiltzea:

- Blog argitalpenak
- Gaikideek berrikusi ez dituzten iturriak
- Prentsa orokorreko artikulua.

## Iturriak ebaluatzea

Iturriak ebaluatzen ikastea funtsezkoa da zure jakintza eremuari begirada kritikoarekin begiratzeko; eta halaxe da Wikipedian ere.

Kontuan hartu beharreko lehenengo faktorea **egilea** da. Gaikideek berrikusita argitaratu duten egileak nahiago dira, beren lana (dela blog bateko testu bat, dela liburu serie bat) eurek argitaratu duten egileen gainetik.

Bigarrenik, kontuan har ezazu **testua** bera. Idazle asko — bereziki, prentsa orokorrean— ekologia gaietan sartzen dira, baina gutxitan dute zientzia arloko prestakuntza egokia. Prentsa orokorreko ondorioak kontrasta itzazu zure jakintza eremuan nagusi diren ondorioekin. Bat al dator adituen kontsentsuarekin? Hala baldin bada, erabil ezazu adituen iturri bat, informazio hori bera artikuluan sartzeko.

Azkenik, aintzat har ezazu **argitaratzailea**. Komeni litzateke ingurumen zientzietako, biologiako edo lotutako arloetako liburu eta testuliburuaren argitaratzaile fidagarri batengandik etortzea aipatutako lan hori. Iturriak nola aipatu jakiteko, ikus | lasterbidea [WP:Erref.](#)

### Adieraz ezazu informazioa zehaztasunez

Funtsezkoa da zure iturriari begi kritikoz begiratzea; eta zure testua arretaz ebaluatzea, ea iturri horietatik hartutako informazioa zehaztasunez azaltzen duen.

Eskolako lan gehienetan ez bezala, Wikipedian ez da onartzen ikerketa originalik. Wikipediako artikuluek iturriek diotena jaso behar dute, eta ez zure interpretaziorik edo iritzirik.

Konparazio baterako, guztiz onargarria da esatea musker espezie bat gain behera datorrela 1989az geroztik. Era berean, onargarria da esatea toki horretako fabrika baten isurpenak aurkitu direla musker horren habitatean 1989az geroztik. Baina ez zenuke bi gertaera horien artean lotura dagoenik adierazi behar, salbu eta biak lotzen dituen iturri fidagarriaren bat aipa badezakezu. Bestela,

*ikerketa originala* da, hots, zeure ondorioak ari zara aurkezten.

Orobat, kontuz ibil zaitez ingurumenari buruzko gertaerak azaltzean. Sarritan, erraza da datu objektiboetan oinarrituta ez dagoen jauzi mental bat egitea. Esaterako, informazio iturri fidagarri batek adierazten badu azeri espezie bat ez dela ikusi eskualde jakin batean 1907az geroztik, ez zenuke idatzi behar «azeria eskualdetik desagertu zen 1907an». Hori datu objektiboak desitxuratzea da; izan ere, kontua da azeria ez dela ikusi, besterik gabe. Beharbada, han bizi da oraindik.

Ziurta ezazu artikulurako darabilzun materiala ondo ulertu duzula, idazten hasi baino lehen. Har ezazu informazio ona iturri fidagarrietatik; gero, deskriba ezazu informazio hori zeure hitzekin. Horrela, seguru jakingo duzu Wikipediara ekartzen duzun informazioa zehatza, objektiboa, ondo oinarritua eta baliagarria dela.

## Artikulu idaztea

Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:

- Idatz ezazu modu inbertsonalean, datuetan oinarrituta, estilo entziklopedikoarekin; ez idatzi saiakera baten edo blog bateko testu baten modura. Ikus ezazu Wikipedia editatzen gida (lotura du zure ikastaroko orrian), tonuaren ezberdintasuna zein den gogoratu nahi baduzu.
- Artikuluko gaiaren alderdi bakoitzari eman iezaiozu dagokion pisua, gaiari buruzko iturriei jarraituz.



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada beharrezkoa izango da baimena ([https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark\\_policy](https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy)). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu [trademarks@wikimedia.org](mailto:trademarks@wikimedia.org) helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.

- Termino teknikoak lehenengo aldiz aipatzean, eman ezazu azalpen labur bat parentesi artean euskara errazean, ahal bada.

- Idatz itzazu datu objektiboak. Errespeta itzazu irakurleak, eta onar ezazu datu enpirikoek ez dituztela bi irakurle ondorio berera eramango beti.

- Artikuluan ikerketari buruz idazten ari bazara, saia zaitez haren metodologiaren deskribapen osoa egiten. Horregatik da garrantzitsua artikulurako darabilzun materiala ulertzea eta zure ulerkera egiazta ezazu hainbat iturritan.

## Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulu on eta fidagarriak idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaiozu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.

- Wikipediara ekarpenak egiteari buruzko beste galderarik baldin baduzu, galdetu zure ikastaroko orrian zehaztutako Wikipediako edukietako adituari, edo idatzi zure galdera Txokoan. Txokora joateko, bilaketa laukian teklea ezazu | lasterbidea [WP:Txokoa](#)

- Tarteka, begira ezazu zeure orrian! Interesgarria izan daiteke zure artikulu nola hazten den ikustea, baina beharbada iruzkinak eta iradokizunak jaso dituzu beste wikilari batzuegandik, eta beharbada norabide eta garapen berrietan parte hartu nahiko duzu.



E U S K A L

WIKILARIEN

K U L T U R A E L K A R T E A